


ZURRUNBILLO

komunikazio taldea



ARRI IBI!! - IANBATEA CON LUZI

mozambikeri buruzko epaskuketa
 exposición sobre mozambique
 Ametzagaina (Egia), Teteg(r)ia
 05/14/22-05/31/22

JARRAKO
 -Larrabxo 9/6-12
 -Herrera 24/6-26
 -Altza kasko 28/6-3/7

Jai herrikoiak!
 Fiestas populares!

Gure txoznan bilatu
 Buscanos en nuestra txozna

Zurrunbiloren berri helbide honetan izan dezakezu
 Podras recibir noticias de Zurrunbilo en esta dirección
euskalherria.indymedia.org

Z.K.T.
 Zurrunbilo appo 4023
 20017 Altza (Donostia?)
 komunikazio taldea

Zurrunbiloan@yahoo.es

TXIRINGITO
 "Ruti Kolekzion Vol. 1" 1984-87
 ASTROZOMBIES
 NORK JAINKOAK '2 KATE 'MCD
 BEZALA 'ESKUASSAMENTO
 'GAIZKINE 'AMONIAKO 87
 'SEÑOR NO 'BELDURREZ 'OBLIGACIONES
 'NEKEZ 'EZIN IZAN 'TTAK!
 'JOUSILOULI 'FIST FUCKING 'NCC



2-4
 HISTORIA

5
 Franki

6-7
 Gutunak

8-9
 Lapikoan

10-11
 Musika

12-14
 Mozambikoa terra de bea gente

15
 Altza Mintzo

16-17
 Gutunak

18-19
 Elkarrizketa

19-21
 Gutunak

22-23
 Lapikoan

komunikazio taldea

HERREN SAUCIE BERRIRO UJA ESTAMOS ACIJI DIE NUEVO

Ahazteztina izan beharko lukeen istorioa...



1996-eko eguberriak
ordurarte izandako
beste guztiak
bezaiaokak izango
zirela uste zuten
askok, santo Tomas
bezperan zerbaitek
apurtu zuen ordea
"eguputa" hauen
monotonia.

histeriaren HISTORIA

Urte hartan ez zen sasi jexukristorik jaio, aldizkari bat baino gehio izango zen fanzinea baizik. Hasieran DIN-4 bat erditik tolestutako 16 orriko auzkezpena izan zen, Txemariaren bitartez lortutako inprenta batetan egindako koloredun portada ta guztill Bukatuta zegoenean konturatuko ginen... "Aiba la hostia! Erdian bi orri zintzilik geratzen zaizkigu" "Pikutara! norik berak duen paranoia idatz dezala jartzen degu, ta kitt!" Hala egin genuen, hori baitzen Zurrunbiloren helburuetako bat. Zurrunbilok beti nahi izan duena ez baita aldizkari soil bat ateratzearena, Alzatar gazteon arteko komunikazio dinamiko ta partehartzailea lortzearena baizik. Aldizkariaren orriak beti zabalik egongo dira nahi duenarentzat. Baina Zurrunbiloarena ez da hor bukatzen, ez horixe, aldizkariak aparte: txarrik, eztabaidak, antzerkiak, kontzertuak, erakusketak, topaketak... antolatatu izan ditu Zurrunbilok.

Markatutako lehen urratsa bazkideak lortzearena izan zen. Aurkezpenaren ondorengoak aldizkari eleganteak izatea erabaki baitgenuen baina horretarako dirua behar da ta gu ez ginen "National Geografik". Hori lortzeko "xoxik pe" kanpaina jarri genuen abian, bazkideei mila pela eskatzen genien urte batez aldizkaria etxean jasoko zutenaren aitzakiarekin. Bazkide mordo bat egin genituen eta honek lehen alea ateratzeko dirua lortzen laguntzeaz gain, gure herria sakonki ezagutzeko aukera eman digu. Etxez etxe banatzen ditugu aldizkariak ta Altza aldapaz josita dagoela konturatu gera. Lehen alean gazte bonobusaren gaia jorratu genuen beste askorekin batera. Aldizkariak atal finkoak zituzten "Altza Mintzo" Alzako herri mugimenduei eskeinia, "Zaharrak Berri" aktualitateaz hitzegiten zuena, "Lapikoan" gazteen ezinegon artistikoari zabalduakoa, "Gutunak" jendea adierazteko orriak, "Musika" taldeei elkarriketak eta musikarekin zerikusia zuten artikulua, eta azkenik aldizkari bakoitzak zuen gai zentrala.




LA EXTRAÑA PAREJA



iste o es muy malo
iel
e gusta,
os problemas?
han hecho
e entiende
haces gracia
ey
iedad
n
o altero
na mierda
y ricos ladrones
y pobres que se dejan?
ahí
neta.

Txorimalo

IRABARRIAK



egin zaitetz bazkide lehenen
hazte soci@quanto



ENLARRUNBILON
E-mail: zurrumbil@neto.com

Ez galdu aukera
adierazi zaitetz ZURRUNBILON



No te lo calles, expresat' en
ZURRUNBILON
mandados tus escritos o komiks, ed@ds somot zurrumbil@...
e-mail: ZURRUNBILON@neto.com

Bazkide berriak egin genituen arren aldizkariak ateratzeko diru nahikoa ez eta gainera instituzioen partetik inongo laguntzarik jaso ez genezuez, autogestioa zen gure bizi iraupena lor zezakeen bakarra. Mobida guztietan han ginen, biringitua montatu ta, gure aldizkari eta kamisetekin. Horrez gain guk ere ekitaldi mordo bat antolatu genituen, bide batez Zurrumbiloren funtsezko arimari bizia emanaz.

Denbora aurrera zihoan ala leku ezberdinetan batzen ginen bilerak egiteko, hasieran edozein tabernetan egiten genituen asanbladak, Larraboko lokal batean ere egon ginen, hortik garaje batera joan behar izan ginen, etabar... Argi zegoen gazteok Altzan antolatzeko lekurik ez genuela, Intxaurrundoko "Letaman" gaztetxera joan behar izan ginen gure bilerak eta gure gauzak gorde ahal izateko. Oztopoak oztopo pixkanaka aldizkari ezberdinak plazaratu genituen gai nagusi ezberdinekin; "langabezia", "okupazioa", "arrazakeria", "Altzako lehen gazte topaketak"... Azken hau izango zen udaletxeko instituzio "kulturallean" ospetsu egingo gintuena. Aie hau atera, eta hor nonbait, ez zitzairen batere gustatu. Oraindik ez dakigu zihur gure narrazioak eskasak zirela iruditu zitzaielako edo topaketetan bildu ginenen artean piztu zen lokal autogestionatu baten premiagatik izan ote zen. Dena den, Zurrumbiloren adierazpen askatasuna "kultur etxean" galerazi zuten. Jakin dezatela guk ere ez dugula burokrazia gustoko eta haren morroi izatea espero badute, jai dute gurekin. Guzti honekin batera bazirudien Altzan gaztetxe bat izango genuela behingoz, lehenik Rutilitako instalazioak okupatu ziren baina handik gutxira berriz ere instituzioen esku zikinak zapuztu zituen gazte ugariren ametsak. Han zeuden gazteekin hitzegin ordez, txakurrak askatu zituzten gazteak handik kanporatu eta espekuladoreei ateak perez perez zabaltzeko. Gazteak beraien burua berriz ere kalean ikusita Renfe "trentaixean" abandonatutako lokal batean sartu ziren. Baina oraingoran ere zipaioak bidali zituzten gazteak kanporatzeko. Hemendik bidali bezain pronto Sport 2000eko etxea zenera sartu ziren. Dena atonduta zegoenean 20 urtez grisa eta orain zerua bezain urdin zen etxea bota zuten aurretik inongo abisurik eman gabe. Betiko putreen aginduz, askotan egin izan ohi duten modura, langileria erabili zuten lan zikina egiteko.



Zurrunbilo Alzarekin duen konpromisoa-
gatik eta diru beharragatik herriko jai guztie-
tan han ginen gure boznarekin. Hori gutxi ez
balitz, jai guztiz alternatiboak antolatzen ibili
gera. Kontzertu mordo bat egin dira Altzan
Zurrunbiloren aitzakiarekin. Festi guzti haue-
tan parte hartu zutenen taldeek osatzen
duten "Ruti kolektion Vol I" konpakt diska
atera genuen gazte asanbladarekin batera. 4

eurogatik oso KD kaineroaz goza dezakegu
orduko garai horiek suposatu zutena gogoratu. Kontzertuetaz gain txarla eta eztabai-
dak ere ugariak izan dira, eta nola ez, jai herrikoi batzuen alde lana egin izan du
Zurrunbilok.

2001. urtean Zurrunbiloren historian inoiz gertatu
den zorigaitzorik handiena gertatuko zen. Madero ugari
urbildu ziren Altzara Zurrunbiloren adiskide eta pione-
roetako bat abilotzea. Estatuak asmatutako aitzakiare-
kin gure herriko gazte dinamikoetako bat ostu ziguten
"por la putacara". Oraindik bahituta jarraitzen duen
arren, Arkaitz 500-1000 kilometro edo ta
Katchankara ere eraman dezakete fisikoki, baina
gure artean egoten jarraitzen duela Zurrunbiloren
ale berri honek baieztatzen du. **Aupa Arkaitz!**



Aldizkariak ordudik hona denbora luzea eman du geldirik, jendeak Zurrunbilo hil
ote zen galdetzen zigun. Ez motel ez, udaberri-uda latzak izan ziren eta udazken gogor
baten ostean neguan artzak bezala atseden hartzen ari zen besterik ez. Espero degu

orain ere, Zurrunbilok zerbait antolatzen
duenean Altzarrak hurbilduko zaretela
aktiboki parte hartzera, hala ez ba da,
Zurrunbilok ea hilik ba ote zaudeten gal-
detuko dizue, izan ere...



neguek amaiera dute eta
iratzartzeko garaia aspaldi
heldu zen! @

Zurrunbiloa ez da inoiz geldirik egoten. Anima zaitetzte zurrunbilori indarra ematen!



arabo-musulmanen borroka eta aldarrikapenak (baik, bai egungo-
ak ere) aniztasun horren barruan ulertu behar dira. Korrean hartu-
ta, emakume arabo-musulmanen borroka, antikolo eta anti-inpe-
rialista da, hau da, mendebaldeko inposaketan konitzen da, ema-
kumeak subjektu aktiboak direlako, eta ez pasiboak, esanekoak
eta ahulak, mendebaldeko diskurtsoek dioten bezal

Zer motatako ikuspegi eta diskurtsoak era mendebalde-
an, herrialde arabo-musulmanaren generoaz eta az hitz egiten
denean? Emakume, zein gizozkoen "islamizazio" man daiteke:
"Erligio islamikoak, emakumeak bazterten ditu, esaurituz" eta bes-
taldetik, "Gizon musulmanak orohar, misoginoak, ik, biolentoak,
atzeratuak eta fanatikoak dira". Estereotipoak ester gertatzen da
identitatearen arazoarekin jatorrizko herrialdeetan? dieraziz, koloni-
alismoa eta bere ondorioak pairatu ondoren, inder mugimendue-
kin, "Estatu-nazioetan" bihurtzea lotu zuten bat-ertako liderrak
boterera iritsi bezain laster elite batean bihurtu zirengorria ezarri,
oposizioa isilduz eta erreprimiuz (kolonizazioarekin errotatu zuten
askatasunerako mugimenduak oposizio izatera p; Baina, ulertu
beharra dago, lider ezkertiar hauen aldaketa boterkoan, ez dela
espontaneo, botere neokolonizatzeileengatik mabaitago azken
finean. Inperialismoak gobernu lokal korruptoak beko beki beraien
interesak mantentzeko.

Identitate arabo-musulmanaren herriko aldarrikapena,
kolonizazioaren asimilazioaren ondotik garrantzi lka. Badakigu
identitatea, aldatzen doan gauza dela, eta generozioa ezaugarri
garrantzitsu bat bihurtzen da taldearen definizio bat luntu honetan,
"emakume arabo-musulmanaren identitatea" instruzen da, denek
beraien interesen arabera definitu nahi dutelako, barrotz inperia-
listek, bai petroleoaren jatorrizko elite boteretsuek e
Argeliako eta Irango emakumeen borroka, besteakiz adierazga-
rriak dira. Argelia kolonizatu frantsesek emakumeen (beloaren)
aurka aritu ziren jo eta su (1930-54 artean), Iranen Phalevi seme-
ak hiyaba eramatea debekatu zuen (1970) mendebaldeko intere-
resei men eginez. Bi egoeretan emakumeen erarlina izan zen,
hiyaba janztearena alegia, aspalditik hiyaba ez zeriakume askok
berriro jantzi zuten erresistentziaren sinbolo bezalaja eta inperia-
lismoaren aurkako aldarrikapen politiko-kultural bez
Mendebaldeak izugarrizko ezintasuna du emakurrialde arabo-
musulmanen aldarrikapenak eta borroka ulertzartzeko. Baita
beste munduko herrienak ere. @

Mirentxutxu




Gure mendebaldeko ikuspegiak zailtasun handiak ditu herrialde arabo-musulmanetan gertatu den eta gertatzen ari den errealitatea ulertzeko. Komunikabideek arazo hau okerragotu besterik ez dute egiten, guk ditugun estereotipo eta prejuizioak sakontzen eta finkatzen dituztelako. Gure ezjakintasunak gainera, jarrera eta diskurtso arro eta xenofoboak izatera garamatza, herrialde hauetan bizi diren emakumeen eta gizonen egoeraz hitzegiten dugunean. Horra hor, gure gailentasun kulturalak eta etnozentrismoak sortzen dituen arazoak besteen egoera heterogeneoak ulertzeko.

Mediterranear itsasoaren alde batean eta bestean dauden botere eragileek emakume arabo-musulmanen egoera eta errealitatea beraien interes politiko, ekonomiko eta ideologikoekin lotzen eta erlazionatzen saiatzen dira. Emakume arabo-musulmanen problematika guztia (bai beraien jatorrizko herrialdeetan, bai mendebaldeko herrialdeetan), marku orokor kontestualizatu batean hausnartu behar da, hau da, inperialismoaren analisiaren barruan, eta inperialismoak sortzen dituen kontraesan, arazo eta zapalkuntza modu anitzetan.

Mendebaldeko ikuspegiak, gizarte eta herrialde arabo-musulmanak homogeneoki ulertzen ditu, eta hau, oholza ezin hobea da estereotipoen eraikuntzerako. Beraien errealitatea, aldiz, oso ezberdina eta anitza da; kulturalki, erlijiosoki, sistema juridiko-politikoetan, biztanleriaren identitatean... Islama, herrialde bakoitzean forma desberdina hartu du, leku bakoitzean zeuden ohiturak egokitu zaiolako askotan. Biztanleria musulmana 1000 milioi ingurukoa da, honen %30-a Indian bizi da; Indonesia musulman gehien dagoen herrialdea da; %20-a Afrikan; %18-a herrialde arabo-musulmanetan; %17a Asiako hegoaldean; %10-a lehengo Sobietar Batasuneko herrialdeetan; %10-a Turkia, Afganistan eta Iranen; musulmanen gubiergoa Hego Amerikan, Australian eta Europan; AEBan 5 milioi inguru musulman bizi dira egun.

Guztiz anitzak eta desberdinak diren horretan, herrialde arabo-musulmanek kolonizazioaren zapalkuntza amankomuna izan dute, egungo neokolonizazio inperialistarekin batera. Menperaketari aurre egiteko, leku bakoitzean estrategia desberdin anitzak erabili dituzte. Emakume



Markina. 18:15.
 "Maskulinitatea aztergai" hitzaldia 129. gelan.
 Atea gurutzatu orduko izandako inpresioa, ona.
 Uste baino jende gehiago dago.
 Batez ere, uste baino mutil gehiago dago. Jakin min larri bat asetu beharrak bultzatu nau hemen egoterra, ez naiz damutzen. Hizlaria hizketan hasi da, doinu jator eta era umoretsuan. Nire musika talde gogokoenaren sudadera darama jantzita, gainera. Oraintxe, arreta handiz entzuten ari naitzaio.

Sexismoa gu jaio aurretik ere existitzen zela esan digu, eta jakina, inor ez da harritu. Hori bagenekien. Beharbada, han geundenok -gazteenetakook behik behin- horren garbi ikusten ez genuena, sexismoa gizartea kate motzean kontrolatuta eta arazo absurdoetatik kezkatuta mantentzeko kapitalismoaren hamaika azpijokoetako bat gehiago baino ez dela da. Aberatsek pobreak zapaltzen dituzte. Zuriak beltzak. Gizonek emakumeak. Funtsean, bi talde, bata bestearen kontra borrokan.

Gizonek emakumeak zapaltzen dituzte eta emakumeek zapalkuntza horretatik askatu nahi dute. Emakumeek urratzen zaizkien eskubideak berreskuratu nahi dituzte, dagokiena borrokatu, ebatsia izan zalen boterearen jabe izan. Parekidetasuna lortu nahi dute. Eta gizonek zer? Zer lortu nahi dute beraiek? Badirudi gizonezkoek euren burua eskubideak galtzera derrigortuta ikusten dutela, emakumeei ematera derrigortuta, eta ez da horrela. Ez dira eskubideak luzatu behar dituztenak, desberdintasun egoera bidegabe batean lortutako pribilegioak baizik.

Baina, behin ez dagozkien pribilegio horiek utzita, emakumeek euren eskubideak berreskuratuta, zer daukate benetan irabazteko gizonek? Euren mugetatik, inposatuak izan zaizkien mugetatik, askatzeko aukera. Gizonezkoak, emakumeak menpean hartzeko hezituak izan diren heinean, sistemaren beraren biktima bilakatzen dira. Inkontzienteki jasan duten jazarpenak bereganatuarazi dizkie "mutilen-rolak" omen direnak. Txikitatik ikasi dute emakumeak eurek baino "gutxiago" direla, emakumeek gizonek babes ditzaten behar dutela baina, aldi berean, gogor jokatu behar dela beraiekin. Gizonezkoek negarrik ez egiten ikasi dute, indartsuak izaten, sentimentuak ez erakusten, sentipenak irensten... ia-ia pertsona izateari uzten ikasi dute. Guzti horri buelta ematea, nortasuna berreskuratzea, bakoitzak nahi duen modukoa izateko aukera lortzea, guztia da irabazteko dutena. Lotu

borrokara! ☺



eta ordena aldatu dute gazteak egoteko lehen postuan, zazpigarren edo zortzigarrenak izan behar zutenean. Hau geratu zen gehienbat, martxoan gazte horietako batzuk 4 urte betetzen zituztelako gartzelan, eta legedi espainiarak 4 urtetan du salbuespenezko askatasun gabezia erabiltzeko topea, eta ez zituen askatu nahi.

Hau horrela izanik, korrika eta presaka otsailaren 7an hasi da epaiketa, prozedura bortxaluz eta irregulartasun salaketan erdian. Ematen du tribunalak onartzen duela ezarritako data, baina ez du berak nahi zuen epean bukatzea lortzen eta bata bestearen atzetik aske utzi behar izan ditu lehenengoak eta epaiketak badirau 2 hilabete pasa eta gero.

Audientzia Nazionalak epailu beharrean, bera izaten ari da epailua: gazte deklarazioak, lekukoenak, polizia funtsik gabeko usteak... argi eta garbi adierazten ari direlako epaiketa politiko bat izaten ari dela. Ez dira delituak edota delitugileak epaitzen ari baizik eta erakundeak, ideiak, helburuak... guzti hauek zuzenbidezko estatu baten zilegiak izanik.

Besteik komunikabideak ere alpatu beharko liritezke. Hauek operazioak prestatu zituzten, denak kriminalizatzeke. Iritzi publikoa asaldatuta zegoenean, orduan etorritzen zen togaduna haren polizia lan jarraitzeko. Orain berriz, ixilpean dute zer gertatzen ari den Audientzia Nazionalako epaiketa honetan. Riasierako egunean 4-5 argazki ageritzen zen medio bakoitzean nahi eta oso sakon ez informatu. Bestelik ere orri batzuk gehitu behar izan zituzten Azkarragaren erabakia izan zela eta. Madrilerako bi ikuskatzaille bidaltzea. Baina, zer dela eta orain hain garrantzi gutxi?

Eta azkenik AVT-koak (Asociación Víctimas del Terrorismo) egongo liritezke. Hauek, esate baterako, urduri daude eta horrela agertu dira El Mundo egunkarian egindako erreportaietan. Azken finean esaten dute, epaiketa ez dela zuzenki abiatu, haiak eta biktimen memoria ez deirela errespetatzen eta ez dutela inolako konfidantzarik (!) tribunalen.

Zein izan da zuen ustez epaiketa hauei kalean emandako erantzuna? Eta partidu politikoaren jarrera zein izan da?
 Pieza bakoitzak bere esparru naturala jorratu behar du elkartasun bila. Gazteei tokatu zaie hasiera, arriskalzea eta asmatzea, eta asmatu egin dute, kamiseta gorri famatuarekin

"Eskubide zibil eta politikoaren defentsan... Gazteria aurrera!", hau oso didaktikoa izan baita zergatia adierazteko. Gainera gazte erakunde asko edo anitzekin (kulturu, kirol...) harreman izan dute.

Bestelik talde politikoaren gazteei dagokien, ultranazionalista espainolak eziz (PP, PSOE), beste taldeen gazteek ere elkartasuna agertu dute. Baina partidu politikoaren erantzuna epelagoa izan da; PP-PSOE aparte, PNV eta IU ez dira batera busti partidu bezala. Baina bai berriz, Batasuna, EA, Aralar, Zutik eta ANV.

Eta azkenik, hemen aipatu gabe ezin utzi 18/98+ plataformaren sorrera. Plataforma hau estalpe bai izan nahiko luke makrosumarioaren barnean diren erakunde eta inputatu guztientzat, sumario bakoitzaren izaera eta autonomia errespetatuz. Estatuaren estategia salatu nahi du iritzi, adierazpen, antolakuntza eta disidentziarako askatasuna jazarritzen duela eta urratutako eskubideak aldarrikatzen dituelako.

Nota aurkitzen da Arkaitz? Eta zuek, familia?

Neska-mutleek garbi izan dute hasieratik edo hasiera baino lehenagotik (haien bila etorriko zirela bazekitelako) zer nolako prezioa ordaindu behar den zure herriaren alde egiteagatik. Ideiak garbi edukita morala indartsu dago. Bestieki eikaritasun keinuak ikusita garbiago sentitzen duzu beide onean aurkitzen zarela, kosta ala kosta; min egingo dizute, baina arrazola zuera da.

Arkaitz, epaiketa luze hau dela eta oso nekatuta dago, baina oso pozik eta lehenago esan bezala oso indartsu.

Gurasoak, familia, gertuen dituzten gizarte kideak gara, haiek gizarteratzeko prozesuan arduara izan dugunak. Hazkunde arduratsu batek, pertsonak hezitzeak, eta ez subditok edota kontsumitzaile hutsak, horrelako ondorioak ekar ditzake, gaur eta hemen, zeharka eta baita zuzeneko zigorra jaso daiteke. Ez litzateke horrela izan beharko, baina berriro hasi behar bagenu, berriro hezi beharko bagenu gure seme-alabak, balore berdinetan heziko genituzke, injustiziaren kontra eta eskubideen aldeko baloreetan, hitz batetan, konpromisoan, gizarte berri bat eraikitzeko konpromisoan. Harro gaude gure seme-alabetaz eta zergatik ez esan, baita gure hautuaz ere. ☺

Agustin Rodriguez eta Maria Luisa Torresek in ibili gara solasean. Hauek Arkaitz Rodriguez altzatar gazte espetxeratuaren gurasoak dira. Arkaitz, zurrumbilone lanean ibilitakoa dugu eta momentu hauetan (otsailetik hobe esanda), epaitua izaten ari da Jarrai-Haika-Segi sumarioaren barnean, hau 18/98 makrosumariopean aurkitzen delarik.



Orain esan bezala Arkaitz epaitua izaten ari da, baina zergatik ematen ari da epaiketa hau?

Bueno, logikoa den bezala operazio politzial bat eman ondoren edota hobe esanda, espetxeraketa gertatu ondoren berr epaiketa bat dator atzetik, eta hortara dator hau ere. Baina honek badu ezberdintasun bat besteekin alderatuz, epaiketa hau edota orain arte sumario ezberdinetan jasotako operazioak, estatuak Euskal Herriaren aurka hartutako erabaki errepresibo batean oinarritzen direla, bakoitza bere esparruan (politika, kultura, komunikabideak, giza eskubideak...) baina denak ofentsiba berdinen barnean. Eraso hauek 1998an hasi ziren Egin-en itxierarekin eta oraingoz (eta espero dugu horrela izatea) Egunkaria-ren itxiera eta Udalbiltzaren ilegalizazioarekin bukatu ziren 2003.urtean.

Zuek gazteez aparte beste alor batzuk ere aipatu dituzue (kultura...), guzti honek osatzen al du 18/98 sumarioa? Eta hala ez bada zertan datza makrosumario hau?

Makrosumario hau PPK Garzonen bidez martxan jarritako aparatua bat da (Egunkariaren kasuan salbuespen bat egon zen, Luis Del Olmok eraman baitzuen operazioa), zein PSOEk ez du geldiarazi izan nahi. Hauxe, lehenago esan bezala, Euskal Herriaren aurkako erasoak emateko aitzakia izan da, inputazioa kasu guztietan berdina

baita eta inputatuak ildo berekoak.

18/98 makrosumarioak sumario asko ditu bere barnean (enpresak, Egin, Xaki, Ekin, Joxemi Zumalabe...), Haika ere bere barruan jaio zen, baina orduan zegoen Audentzia Nazionalako 4. aretoak ez zuen Garzonen tesia onartzen, eta orduarte espetxeraturik zegoen jendea 6-8 hilabete gartzelan pasa ondoren kaleratu egiten zituzten. Hau horrela izanik, Garzonek Haika sumarioari izena aldatu zion 18/01 izena ipiniz, horrela zihurtatzen zuen sumario berri hori ez zela 4. aretoko epaileen eskuetan geldituko baizik eta beste areto batengan. Eta horrela egin zuen harrezgertik sumario ezberdina irekitzen zuen operazio bakoitzarentzat: Gestorak-Askatasuna, Segi, Batasuna... Laburbilduz, zergatik deitzen zaio guztiari 18/98? Audentzia Nazionalak sumario guztiak gauza bera izatea nahi zuelako, agindu politiko bat moztortu egin zuelako, (judzializatu) eta erabilitako aitzakia berdina delako "dena ETA da". Gainera aukeratutako jendeak ezaugarri berdinak betetzen dituelako, Euskal Herriaren alde, bakoitzak bere esparruan lan egiten zuela.

Zer moduz ikusten da epaiketa kanpotik?

Epaietak datu susmagarri batzuk baditu, adibidez, denboraren arabera Egin-en aurkako epaiketa izan beharko litzateke lehen,

El increíble mundo de...



la DEMOCRACIA representativa


Llega el gran día, La vuelta al cole! Ese día iremos tod@s al colegio, como cuando eramos cri@s, para dejar la papelina. Si tienes suerte y te toca, podras participar en la fiesta convirtiendote en un payaso más del circo que tienen montado, te pasarás el día entero sentand@ en un pupitre observando una pecera. Recuento de votos... llega el veredicto... solo habrá un vencedor... pero... sorpresa! Han ganado todos, es un milagro! Sólo en el increíble mundo de la democracia representativa pueden llegar a pasar estos milagos....No, pero ahora hablando en serio. Si esto es política apaga y vamonos, pfff... vamos mal, muy mal...🌀

Desde la madriguera

IRABARKIAK



colaboración especial de GreenDix



El increíble mundo de..

II PARTE



Me haría muchísima gracia, si no fuera por la seriedad del asunto, la manera que tienen los políticos (o mejor dicho abogados, economistas, burgueses...) para amoldar el lenguaje a su aburrida verbosidad. Les encanta hablar de la mayoría del pueblo y esas cosas. Pero con la excusa de que ellos se han inventado el juego hacen las trampas que les da la gana. Me acuerdo todavía del referendum que se montaron con lo de la constitución europea. Primero iban de guay en plan de... mira que majos somos que os vamos a preguntar a ver que

os parece las reglas que os vamos a imponer. Muy poca gente voto que, SI QUIERO! la mayoría realmente ni se tomo la molestia de ir a votar y unos cuantos dijeron TE LA METES POR EL CULO! Pero dá igual nos la han endiñao porque a ellos les parecía una buena idea. Tanto los fascistas de derechas como los meapias izquierlist@s, juntitos de la mano, nos ganaron una vez más la partida.

Eso si, cuando creen que la respuesta del inculto populacho puede que no les guste demasiado y lo puedan tener realmente difícil para hacer trampas sin que se note demasiado, no preguntan y punto. Luego nos la meten con que ellos son los representantes del pueblo, y que se yo que cuento chino, y toman las decisiones que más favorece a sus intereses. Luego está lo del derecho de admisión en su circo particular. No se si os habréis dado cuenta, pero en Euskal Herria tienen anuladas a un porcentaje considerable de gente a la que no dejan ni participar en el circo por miedo a que pataleen. Y digo yo, si este grupo de agotes ni siquiera tiene derecho a elegir a sus representantes, porqué se ven obligados a pagar impuestos para engordar aún más las cuentas de los "políticos" con quienes no se sienten representados ni de coña ¿Será que les interesa?. Este increíble circo llamado democracia, en serio que me hace gracia. ☹

Desde la madriguera

IRADRANKIK

¿que pasa por la calle?


Appo 4023 20017 Altza (Donostia?)

zurrunbil@an@yahoo.es




Hemen Arkaitzen eskutitz bat jartzea pentsatua genuen, baina jasaten hari den sasi auzi honek edonorri zeharo lur jota uzteko modukoa denez, uler ezazue oraingoan ez idatzi izana. Benga Arka animo!Aupa hi!





Parco los Olmos



Santa
bar
Barr



Arrizar

JON

TROMBON

"aborigen"



Badakigu ez duzula elkarrizketarik eskeintzen, zer dela eta zure ermetismo mediatikoa?

Beno ba, hasteko nire ermetismoa dialektikoa da eta Harpo Mars bezalakoa naiz, hau da, Marxianoa. Ni markesarekin bakarrik hitzehen det. Behin 300 euro ta koka gramo bat eskeini zidaten, eta nere soinua bakarra uzkitik atera zen.

Zein da Zurrumbilorekin duzun binkulua?

80. hamarkadan izan nuen amemana Euskal Herriko fanzine onena izan zenarekin. Orain beriz, zeharo desbinkulatua nago Madrazoren meza boletina dirudien honekin. Espero det bertan geratzen diren adituek "Zurrumbilo (A)" moduko zerbait sortzea ximaur pila honetatik.

Nolakoa izan zen zure azkeneko jira?

Ono dinamikoa zenbait esnamiaren hermaketan. Insektu Anaiek deitu zidaten Emioñar Arabako bodegetan jira egiteko. Ez genuen kontzertu bat bera ere jo alkohologatik. Sexu alderdian orde, ederki jo genuen kanpaia. Klinex enpresak patrozinatu gintuen eta gotelearen teknika menperatzen ere ikasi genuen. Manubrioa da zalantzarik gabe nere musika tresna.

Kontzertuetan nabaritu al zenuen jendearen berotasuna oholiza gainean?

Batez ere nere poltikioan beti eramaten bait det bistora pinbo bat, fiatoarentzat badakizu. Kontzertuik hungigamena Txaran izan zen, gainera atuna mahonesarekin eta kaskaguetak eman zizkiguten eta botikinean kriston samaskia egin nuen.

Orain ze proiektu darabilkizu buruan?

Atun mahonesarekin eta robotika nahastea. Bere zakilaz elikatzen den ziborg bat diseinatzen ari naiz. Botanika munduan ere murgildurik nabil, odolki baratza da nire helburua... (labeko tximin baten soinua entzuten da)... Labean neuzkan mahonesadun atun hoge kiloak prest daude. Sodomizatu zaitzatelal gusta dakizukelal Eta sekula santan gehiago eman ez dakizuketekete... ketedenporkulo!Jaul!

ALTZA MIATZO



Altzak ezin du 3500 etxebizitza
herriren eraikuntza jasan
Altza no puede ni debe soportar
la construcción de 3500 nuevas
viviendas en Auditx-Akular

-PORQUE... constituye el mayor
desequilibrio territorial y social de
las ultimas decadas.

-PORQUE... se repite el mismo tipo
de politica de construcción masiva,
la misma de la época franquista
que Odon Elorza reconoce como
"salvaje y caotica".

-PORQUE... no es legitimo que
Altzaa responda otra vez a la
demanda de vivienda de toda la
comarca (la demanda de vivienda
para Altza está cuantificada en
menos de 600 viviendas).

-PORQUE... existen mas de 8.000
viviendas sin hacer aprobadas en el
Plan General desde 1995 y reparti-
das por todo Donostia, de las cua-
les más de 3.500 son de protección
oficial.

-PORQUE... no queremos sufrir los
problemas que acarrea la masifica-
ción que supondría la construcción
de un segundo Altza (lo que hoy
conocemos como Altza vien en a
sumar 7.500 viviendas).

-PORQUE... están, además, previs-
tas otras 2.000 viviendas en Altza
(Nerecan, Herrera, Buenavista,
Jolastokleta...).

-PORQUE... lo que Altza necesita es
un plan de regeneración integral
que lleve a cabo la reparación his-
tórica que a esta comunidad satura-
da y colmatada se le debe.

Altzako



Historia Mintegia

Donostiak orain dela 50 urte gutxi gora behera anexioa burutu ondoren Altzak jasan duen egoera administmtiboak bultzatu duen urbanismoak Altzaren izakera eta izatearen desegitea ekarri digu, honen agerpen nimiñora murriztuz, Altzagaina eta zenbaiten gogorapenetara alegia. Desegite hori, hain zuzen, izan dugun eragozpen handiena izan da: ez dakigu zer gertatu den Altzako Udal Artxiboarekin; San Martzial Parrokiko Arxiboa



ere hemendik kanpo eraman dute; eta Etxe Nagusiekin botera gogorapenak, lan tresnak eta bestelako tresneria lurperatu da ere. Beraz, geratu zaigun material eskasarekin lan egin behar izan dugu, boina beste aldetik, jende asko eta ascoren laguntza izan dugu ere, eta laguntza horri esker zenbait datu eta ikerketari hautsa kendu eta argipera emateko aukera eskeini digu, askorentzat bere herriarekiko ardura berpizteko baliagarri izango delakoan dudarik ez.

egiten diete. Izan ere, Vatikanok dioenez, HIESaren aurkako erremediorik onena kastitatea da. Alabaina, Mozambiken ohi-koak baino ohikoagoak dira sexu-harrema-nak. Nolanahi ere, bertan era ezberdi-nean bizi dute gaixotasuna: mozambiketarrak batek 42 urte inguruko bizi itxaropena du, eta birusaren aurkako tratamendurik ezin dute eskuratu.

Desnutrizioa, HIESA eta analfabe-tismoaren ondorioak larriak badira ere, Mozambike "terra do boa gen-te" da. Han hemenka solasaldi goxoa aurkitzea posible da, arazorik gabe. Antza denez, 16 urteko gerra zibila pixkanaka gainditzea lortu dute mozambiketarrek. Bakea 1992. urtean iritsi zen.

Patrice Lumumba merkatua; Xai Xaiko emagalduek, bere haurrak biz-kar gainean daramatzatela lanean; chapaz egindako bidaiak; artaburu erreak; koloreak; argia; usainak; musika; "shangana" dialektoa; haurrak kaleetan korrika; zikinzeria; nire ikasleak eta neska-mutiko guztiak: Zeca, Acacio, Moisés, Dull... Batzuen izenak ahaztuko ditut denboraren poderioz. Maputotik ekarritako irudi batzuk dira horiek guztiak, aldeztuak aurretik pentsatuak neuzkanak lurperatu baititut. Azken batean, bertako urteek hara joaten diren zuriel galdetzen diere ea Europan pertsona beltzak jaten ditugun... ©

Javi-Jota
Argazkiak: Javi-jota



Jippi



Peninos



Iniulene

MUSIKA

Mundo osoan zehar bere tromboiarekin jbran egon eta gero, orain atuna maionesarekin jaten pastzen du denbora gehiena inongo eikarriketarik eskeini gabe. Baina oraingoan ere zurrumbirik mokau ta mokauran artean musikari honen hitz batzuk lortu ditu...

IRAZARRIKIAK

potx taberna

LAU HAIZETA 3 (bajo) HITZA



BAR **MIDO** HERRERA

ANAIK TABERNA
San Martzial plaza



MOZAMBIKE

"TERRA DO BOA GENTE"



Maputok ke usaina dauka. Kaleetan egiten diren suetako kea, zabor-mordoetako, gasolina gaizki erre-tzen duten autoen kea. Nazioarteko Aireportutik Infulene auzorantz doan bidea aski berria da. Errepideak Joaquim Chissano presidente ohiaren izena du: abenduko hauteskunde nagusietan boterea eman berri dio Armando Guebuzari. Bidaiak hamar minutu eskas irauten du, baina furgu-netatik ikusgai dauden irudiak beti-rako izango ditut gogoan.

Telebistan maiz ikusten ditugun haur aldra honetako bat datorrigu atzetik saltoka eta brinkoka. Haurrek, bainujantzi bat baino ez dutelarik soineko, "Centro de Acolhimento Dom Bosco"raino laguntzen gaituzte. Ber-tan, moja salestarrerik ehun neska-mutiko inguru babesten dituzte. Lehenago, kaleko umeak ziren, "meninos da rúa". "Shangana" bertako dialektoan "moluwendes" esaten zaie. Orain, berriz, katolikoak dirá, egunean hiru aldiz jateko aukera ematen dielako ho-rrek. Eta hori Afrikan ez da oso arranta, askok eta askok otordu bakarra bai-tute. Elikagaiak fedearen truke.

Honetako asko seropositiboak dira, oraindik ez badakite ere. Eta hori gutxi balitz ere, mojek ez dute onartzen beren neska-mutikoen HIESA daukatenik. "Ez dute botaka egiten. suka-rik ez dute. HIESA hegoafrikarrek asmatutako gaixotasuna da. beltzen gainpopulazioarekin bukatzeko", dio-te. Preserbatiboak erabiltzea sustatzen duten kanpainei muzin



Fatembe